PORTU KALEA

B5

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimia):

Antxinako portua edo untzitegia. San Juan Ibarraren antzera, itsasoari kenduta betetako inguru zingiratsua edo padura.

Muga geografikoak

Kale nahiko laburra da. San Juan kalea dau hegoaldean eta Don Tello kalea iparraldean.

Ezaugarri historikoak

San Juan Ibarragaz mugea egiten dauenez, aitamen historiko berberak egin daikeguz.

B5

SAN BARTOLOME KALEA

Izenaren jatorria

San Bartolome Jesusen ikasleetariko bat izan zan. Tradizinoak dinoanez, Asia txikian, Indian eta Armenian ibili zan irakasten. Azken horretan azala kendu eta gero burua ebagi eutsien. Hortik jatorko larruginen zaindari izatea.

Halan ba, auzo honek santu horren izena hartzen dau eta jaiak be bere omenez ospatzen dauz.

Muga geografikoak

Mendebaldetik Errenteriako zubia. Ekialdetik Aita Villasante eta Kortezubi bidea.

Ezaugarri historikoak

Erdi Aroan, leinuen arteko gerretan bizitza eta ondasun asko galdu ziran. Errenteria liskar horreetariko batzuen lekuko izan zan. Halan gertatu zan 1445ean, Butroetarren eta Arteagatarren arteko burruka baten gizon bi eta andrazko bat hil eta hirurogei gizon zauritu ziran Arteagatarren artean eta beste gizon bi hil Butroetarren artean. 1468an, Arteagatarrak eta Muxikatarrak burrukan ibili ziran. Guda horrexen oroigarri lez egin zan Errenteriako kurutzea, tradizinoak dinoanez.

Edifizio aitagarriak

San Bartolomek bere ermita izan eban Errenteriako auzoan, baina ez dakigu zehatz non egoan. Dakigunez, Ajangizko Santo Tomasen agintaritzapean egoan eta 1789an, jausteko arriskuan egoala-eta, bota egin eben. Auzokoek santu guztiak hartu eta Madalena ermitara eroan ebezan.

San Bartolome auzo-ermita izan zan. Ajangizko lurretan eregita eta herriarena zan zugazti batez inguratuta egoan. Kanpantorrea eta eleizpea izan ezik, beste guztia auzoko beste etxeen erakoa zan: harria eta morterua hormetan eta harri landua hegaletan; teilatua bi aldetara, egurrezko egitura eta teila okerrak; atean puntu-erdiko arkua; kanpantorrea harri landuzkoa eta, seguruenik, kurutze bat gainean.

XIX. mendean eta XX. mendearen hasierara arte, Errenteriako zubi aldean, gaurko 1 eta 3 zenbakien inguruan, Ajangizko herri-hiltegia egoan. Hortxe ipini eben ibaia ondoan egoalako eta garbiketak egiteko baliozkoa zalako.

Errenteriako kurutzea estilo barrokorako transizinoan eginda dago. Oin karratu baten gainean dagoan zutabe joniar batek kapitel plateresko bat eusten dau eta horren gainean arpegi bi daukazan eskultura bat dago: batean piedadea eta bestean Ama Birjina umetxuagaz.

SAN JOSE AUZUNEA

A2

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

1964an etxebizitza moltso bat eregi eben Mestikabaso inguruan. Angel Garatxena eta Pedro Malaxetxebarria eregileek ez eben argi ze izen ipini auzo barri horri eta Garatxenak ez ebanez gura etxebizitzek bere izena eukitea, etxeetako jaubeei giltza emon jaken eguneko santuaren izena ipintea proponidu eban. Eta halan suertau zan San Jose deitzea. Gainera, deun horren omenez, auzoko 1 zenbakidun portalean horma-konka bat jarri zan San Joseren irudiagaz (oraindik bertan dirau).

B4

B5

SAN JUAN KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa): 1937ko bonbardaketan suntsitua izan zan eleizeari zor deutso izena kale honek. San Juan eleizea "Santos Juanes" izenaz be ezaguna izan zan, San Juan Bautista eta San Juan Ebangelistearen omenez eregia izan zan-eta. San Juan Bautista gazterik erretirau zan basamortura, eta barau eta otoitz eginez bizi izan zan. Jordan ibaiaren ertzean egoala, Jesus bataiatu eta Jangoikoaren bildostzat seinalau eban. San Juan Ebangelista, arrantzale lanbidez, Jesusen lehenengotariko jarraitzailea izan zan. Azken hau arranoaren irudiagaz identifiketan da.

Muga geografikoak

Mendebaldetik Allendesalazar kaleak eta ekialdetik Errenteriako zubiak eta San Bartolome kaleak egiten deutsie muga.

Ezaugarri historikoak

Uriaren iparraldetik eta maldan behera, euriteek inguru horretatik beti egiten eben bideak errekasto bat eratu eban (batez be zaparrada handiak ziranean). Errekasto hori estaldu zanean, ibilgua kale bihurtu eben. Hori bai, historian, kale hori beti egon da Gernikako uri zaharretik kanpo. Kalea Goienkaleko hegaletik (bertan egiten eban bat Erret Bideagaz) San Juan eleizaraino ailegetan zan eta Errenteriarantza jarraitzen eban Elantxobe eta Lekeitiorako bideagaz bat eginez.

Antxina "Calle del Norte" izenagaz ezagutzen zan, baina Gernikak eta Lumok bat egin ebenean, San Juan kalea izena ipini eutsien. Lehen, eleizearen aurrean "Boulevar de San Juan" izeneko plazatxu bat egoan. Denporeagaz, etxe barriak egin ebezan ginoan, kalea Errenteriaraino luzatu zan.

Edifizio aitagarriak

Bonbardaketan hondatutako San Juan edo Santos Juanes eleizea 1463an eregi zan orduko uriaren barrenean. Arteagako jauntxoaren aldekoak ziran Artekaleko eta Barrenkaleko auzokideek eroan eben aurrera ekimen hori. 1550ean barriro eregi eta handitu egin zan. Nabe edo areto bakarrekoa zan eta 3 kaperatxo eukazan. Bi Aldape torretxeko eta Zarra familiarenak ziran eta hirugarrena Carlos I enperadorearen mediku izan zan Esteban Feniz de Zabalarena. Eleizkizunetaz "Frayras" edo "Seroak" izeneko andra batzuk arduratzen ziran. XX. mendearen hasieran Ramon de Goiria abadeak barriro altzau eban Luis de Landecho arkitektoaren planoen arabera eta 1910eko zemendiaren 26an inaugurau zan barriro. Bonbardaketan hondatu zan eta kanpaia baino ez zan berreskuratu.

Kale honetako 25. atariko etxebizitzan bada horma-konka bat eskultura txiki bategaz. Bertan, San Juan Bautista Jesukristo bataiatzen irudikatzen da.

SAN JUAN IBARRA

B5

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Elementu bik emoten deutsie izena plaza honi: bata, geografikoa, itsasadarreko "ibarra"; bestea, plaza honen hegoaldean egoan San Juan eleizea, 1937ko bonbardaketan hondatua izan zana.

Muga geografikoak

Honeexek dira plaza hori inguratzen daben kaleak: San Juan kalea hegoaldetik, Portu kalea ekialdetik eta Don Tello kalea iparraldetik. Gainera, plazara bertara emoten dabe Urkieta eta Nere Kabia kaleek.

Ezaugarri historikoak

Inguru hori padurari irabazitakoa da: lurrez bete, lehortu eta makalak (txopoak) landatu ziran. Lur publikoa zanez, Gernikak zein Lumok erabilten eben. Joan dan mendearen azkenerantz, garijoteak egiteko erabilten zan leku hori. San Juan eleiza egoan lekutik ibairaino heltzen zan, Errenteria aurreraino. Ezkerreko aldean etxe ederrak altzau ziran, lorategi eta guzti. Denporeagaz, bertan landatutako gaztainadian kiosko bat eregi zan. Handik gitxira paseetako leku edegi bihurtu zan.

Jesus Mª Toña alkate zala, 60ko hamarkadan, plaza modura egokitu zan: horma batez inguratu, musikarientzako kiosko bat eregi, taberna bat zabaldu eta platanondo ugari landatu ziran.

Hasiera baten, Aurelio Román jaunak eukan taberna horren ardurea eta umeentzako parkeaz be bera arduratzen zan. Parkean urmael bat egoan arrainakaz eta paitakaz, zubitxu eta guzti, baita umeak jolasteko hondarrezko leku bat be.

Urte gitxitan, dana erdi hondatuta gelditu zan, garagardotegi bat egin eben arte. Halan, lehengo bizitasuna lortu eban eta 60ko hamarkadan famatuak ziran berton antolatzen ziran berbena itxiak; Los Bravos edo Los Mitos lako garai haretako izen handiko taldeek jo eben bertan. Gaur egun, haur askoren jolastoki lasaia eta guraso askoren topaleku atsegina dogu.

Edifizio aitagarriak

Plazearen mendebaldean etxe bi ikusi daitekez: Ezenarro etxea, gaur egun musika eskola bihurtua; eta Katarro etxea, Gernikan ospe handiko jatetxea izandakoa eta orain dala gitxi etxebizitza lez erabarritua. Biak be XX. mendearen hasieran eregitakoak dira, Gernikako beste etxe aberats asko lez.

B4

SAN ROKE KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa): San Roke Montpelierren jaio zan 1295ean eta 1327an hil zan. Gaixoakaz arduratuta, euren zerbitzuan bizi izan zan. Mirari nahikotxu egin ebazan antza: jente asko osatu eban eta izurriteak aldendu ebazan hainbat herritatik. Horregaitik guztiorregaitik Eleizeak gaixotasunen, izurriteen eta kutsaduren aurkako zaindari izendatu eban.

San Rokek Gernika-Lumogaz daukan erlazinoa gure herriak jasan eban izurrite batetik dator. Bere laguntza eskatu, eta erreguteak eta otoitz egin ondoren, izurritea desagertu egin zan. Deunari esker ona erakusteko, gernikarrek aldatu egin eben euren herriko zaindaria: ordura arte zaindari izandako San Sebastian kendu eta San Roke jarri eben haren ordez.

Muga geografikoak

Iparraldetik Merkatu plaza dauka eta ekialdetik Don Tello. Mendebaldeak "Ocho de enero de 1882" kaleagaz egiten dau bat.

Ezaugarri historikoak

Geografiari jagokonez, antxinako Errebal inguruaren erdialdean egoan, Gernika inguratzen eben Lumoko eleizateko lurretan. Kale hori 1895ean eratu zan kale moduan, lur zati handienaren jaubea zan "El Fomento" enpreseak ingurua urbanizau ebanean.

Edifizio aitagarriak

"Casa del Circo": gerra aurretik, kalearen iparraldean, Bedoya notarioarena zan etxe bat egoan eta beheko solairuan antzoki-areto bat eukan. Sasoi baten bertan egon zan "Sociedad Tradicionalista" gernikar karlisten egoitza. Bonbardaketan hondatu zan.

Merkatu plaza: bonbardaketaren ostean "Regiones Devastadas"ek eregi eban eta 1990ean birmoldatu egin zan.